

MINDUTAKO HAUR BATEN EGUTEGIA

Haurraren offeko abotsa entzuten dugu. Heldu baten abotsa da, nahiko kaskatua.

Haurra (off)

Egutegi maitea, minutu luzea daramat uteroz kanpo, eta orain arteko esperientzia garratzak nire memoriak idaztera bultzatu nau. Goazen harira. Lehenengo ilea, **Martxoak 8, emakume langilearen eguna**. Manda cojones.

Eskenatokiko alde batean Leire eta Xabi, bi adolezente, txortan egiten era baldarrez.

Bestaldean Tere, berrogeitaka, erratza pasatzen Andres bere senarraren anken azpitik. Andres telebista ikusten.

Xabi
Oh, Leire Leire...

Leire
Zer?

Xabi
Leire!!! Oh, Leire!!

Leire
Zer nahi duzu, koño, que me vas a desgastar el nombre!

Telefonoa.

Tere
Emakumearen eguna, bai horixe!
Zutik emakumea... eta gizona etzanda!

Xabi
Gora...!!

Leire
Ni gora?

Xabi
Gora...!!

Leire
Gora zer? Ankak? Ipurdia?
Que no te entiendo, chico!

Xabi
Gora... (korritzen) Emakume langileria!!!!

Terek telefonoa hartzen du.

Tere
Bai esan? Ez, Leire ikasten dago, lagun batekin.
Bai, gu ere flipatzen. A ver si saca el graduado! Nor zara?

Xabi
Badago! Listo!

Leire
Listo? Será un decir.

Tere
Ikerne? Ez, ezinezkoa.
Ikerne Leirerekin dago ikasten.
(...)Zenbat Ikerne daude, ba?

Leirek kondoi bat aurkitzen du lurrean, irekita baina erabili gabea.

Leire
Zenbat kondoi ekarri duzu?

Xabi
Bat.

Tere
Ez zaude Leirerekin? (...)

Leire
Seguru?

Tere
Seguru?

Leire
Ba kondoaia hemen badago, erabili gabe...

Tere
Ba zu ez bazaude Leirerekin...?

Leire
...orduan ze koño daukazu jarrita?? La bolsa las pipas?

Tere
...orduan norekin dago Leire?

Xabik konprobatzen du ez duela kondoaia ipini.

Xabi
Ostia!

Andres
Ostia!

Haurra (off)

Putamadreko hasiera, ezta? Baina goazen aurrera. Bigarren
ilea. **Apirilak 14, Errepublikaren eguna.**

*Leirek prediktorra sartu du txizaz beteriko baso batean eta
zai geratzen da, urduri.*

Andres telebista ikusten. Tere hara ta hona, egonezinik.

Leire

Ai amaaaa!! Ai amaaaaa!!!

Tere

Ze bizitza petrala gurea, Andres.

Inoiz ez zaigu ezer gertatzen!

Andres

Zer nahi duzu gertatzea?

Tere

Ez dakit ba, emozioen bat, ustekaberen bat, zeozer!

Andres

Quita, quita! Santra rita santa rita,
que me quede como estoy!

Prediktorren kolorea haurdun dagoela dio.

Leire

Ez!! Ez!!

Andres

Bai, bai, ole Gallardón!

Tere

Zer duzu?

Andres

Abortoa debekatuko dutela!

Put madre! Hainbeste katxondeo...

Leire

Xabi!! Xabi!!

Xabi sartzen da.

Xabi

Zer?

Leire

Begira hau!

Xabik txisaz beteriko basoa hartzen du.

Xabi

Zerbezita! Guapamente.

Edan eta gero botatzen du.

Leire

Ba ederto hasi gara!

Bebe (off)

Eta horrela jakin zuen nire aitak aita izango zela.
Hirugarren ilea, *maiatzak 22, Wagner-en jaioteguna.*

Leire

Begira. Umearen ekografia.

Tere

Begira. Umearen notak.

*Xabi eta Andres, bata ekografia eta bestea notekin,
urduritasunez.*

Andres

Uff!

Xabi

Uff!!

Leire

Burua, ankatxoak, besoak, pilila...

Tere

Matematika, fisika, Lengua, Euskera...

Leire

Pilila... txikia, aitarena bezalakoa.

Xabi

Nahikoa!

Andres

Gutxiegi, gutxiegi, gutxiegi eta gutxiegi.

Leire

Nik umea eduki nahi dut, Xabi.

Ez didazu ezer esango...?

Tere

Ez zaitetz ixilik geratu!!

Esan zerbait, egin zerbait!

...zu zara bere aita!!

Xabi

Beno, aber, Leire, bere aita bere aita...

Seguru zaude?

*Terek eta Leirek zaplasteko bana ematen die Andres eta
Xabiri.*

Andres

Aiba la ostia!! Eta orain zer egin dut nik??

Bebe (off)

Laugarren ilea, Ekainak 25, Little Big Horn-eko batalla.

Xabi

Erabaki bat hartu dut.

Andres

Pentsatzen egon naiz.

Xabi

Orain arte eskakeatzekotan egon naiz, baina...

Andres

...bada ordua zezena adarretatik heltzeko.

Xabi

Hemendik aurrera...

Andres

...aitaren betebeharrak betetzen hasiko naiz,
azken finean...

Andres eta Xabi

...ume horren aita naiz, jode!!

Xabi

Begira, liburu bat erosi dut.

*Xabi eta Andresek liburu bera erakusten die norbere
neskari:*

Andres

"Guía para padres inexpertos."

Xabi

Ez didazu ezer esan behar...?

Andres

...eh?

Leire

¿Hori da bururatu zaizun guztia?

Xabi

Gutxi iruditzen? Zuk badakizu ze lotsa pasatu dudan kaletik
ibiltzen liburu batekin?

Leire

Hobeto pentsatu dut. Abortatu nahi dut.

Xabi

Nola? Baina zuk...

Leire

Nire gurasoei esango diet.

Ulertuko dute.

Leire badoa. Xabi bere atzetik.

Xabi

Ala popatik hartzera!

*Andres oraindik liburua erakusten Tereri. Honek ez du
zirkinik ere egin orain arte.*

Andres

Ez duzu ezer esan behar?

Tere

Ez al da pixka bat berandu aita izaten hasteko?

Andres
Inoiz ez da berandu. Japoniar bat Everestera igo zen
larogei urtekin.

Tere
(Moskeoaz) Everestera?

Andrés
Bai.

Tere
(Id,) Japoniar bat?

Andres
Bai.Larogei urterekin.
Oxigenoarekin, jakina.

Tere
Eta zu aita izango zara oxigenoarekin, ala oxigenorik gabe?

Andrés
(Deskonzertaturik) Ba...

Tere
Badakizu zer pentsatu dudan? Dibortzioa eskatzera noala.

Tere badoa.

Andrés
Ez al da pixkat berandu horretarako?

PATIXO

TELEBERTU

Haurra (off)
Boskarren ilea: *uztailak 18, Gerra zibila.*

Xabi, eskuan pilula pote bat duela.

Leire, gurasoen etxean, notizia esan berri du.

Tere
(Haserre) Ba ederto batean, Leire! Ederto batean!!

Xabi
Pilulak irentsi ala ez irentsi,
hor dago kokka. Semerik gabeko aita izan
ala aitarik gabeko seme bat ekarri.
Amore eman, lo egin, betirako deskantsatu...
Dubidu, dubida...deskantsatu
Dubidu dubida, betirako.

Tere
Abortatu behar duzue. Lehen bait lehen.
Oraindik garaiz gaude.

Andres
Nire hilobiaren gainetik!

Tere
Andres, mesedez!

Andres
Nire hilobiaren gainetik!!

Tere
Eta mutilak zer dio?

Leire
Nirekin dago, a tope. A tope.

Une horretan, Xabik pilula pote osoa irensten du.

Xabi
A tomar por culo! Agur ben hur!

Andres
Ba esaiozu mutilari datorrela etxera,
ezagutu nahi dut!!

Leire badoa...

...eta Xabi dagoen aldera iristen da. Xabi azkenetan dago.

Leire
Xabi!! Xabi!!! Zer egin duzuz?

Xabi
Barkaidazu, Leire, baina ez dut adorerik.

Leirek hustutako pilula potea hartzen du.

Xabi

Agur esan diot bizitzari!

Leire

Ze agur ta ze ocho cuartos??

(potea erakutsiz) Almax, gilipollas,
"contra la acidez de estómago"

Xabi

Ostia!

Xabik eskena ixten du korrozkada ozen batez.

PATIXO TELLERIA

Haurra (off)
Seigarren ilea. *Abuztuaren 15. Birginaren eguna.*

Leire eta Tere eskenan.

Tere
Hor utzi ditut biak, meriendatzen.

Leire
Ondo konponduko dira?

Tere
Seguru.

Andres sartzen da, osti txarrez.

Andres
Leire, non aurkitu zenuen babu hau,
tontolaben kastin bat egin zenuen??

Tere
Zer gertatu da?

Andres
Nire tablet berria erabili duela saltxitxoia mozteko!!

*Xabi sartzen da, zerbeza botilatxo batekin, tablet bat
eskuaz garbitzen. Apuratuta.*

Xabi
Ikean honen antzeko tablak saltzen dituzte eta! Baina zu
lasai, hau apur bat lijatu, eta berria bezela!

Andres
Leire, abortatu behar duzu, segituan!

Tere
Beranduegi. Seigarren hilean gaude!
"El tren del aborto ya ha pasado."

Xabi
Trenez eramaten zaituzte abortatzera?

Andres
Jodeeee!!! (A Leire) Laztana, abortatu, mesedez.

Tere
Hori lehenago pentsatu behar zenuen!!

Xabi
Orduan, zer, abortatzen dugu ala ez? Zein da plana?

Andres
Zure amak abortatu behar zuen!!

Xabi
Hortarako ere berandu, uste dut.

Andres Xabirengana doa, haserre bizian.

Leire
Ea, goazen, Xabi, hemen ez dago giro.

*Xabik botilatxoa uztera doa baina hatzamarra sartu du eta
ezin atera.*

Xabi
Jopetas!

Andres
Ostia. Tontolabari "sartzea" gustatzen zaio!!

Tere
Ea, lagunduko dizut.

Terek Xabiri laguntzen dio botila ateratzen, Xabiren ohia eta negarren artean. Leirek eskutik heltzen dio. Eskenak erditze baten itxura guztia du. Tere emagina eta Leire aita sufrituren rolean.

Tere
Hartu arnasa sakon. Horela. Eta bultza.

Erditze aurreko harnasketa erakusten dio.

Xabi
Ah... Ezin dut!! Ezin dut!!!

Tere
Bai, bultza, bultza gogor.

Leire
Eutsi, maitea, eutsi!!

Tere
Irteten ari da!! Bultza!! Irteten ari da!!

Xabi
Ahhhh...!!

Tere
Hemen dago!!

Xabi leher eginda, arnas estuka, izerdi patsetan. Tere eta Leire emozionaturik. Leirek musu bat ematen dio.

Leire
Oso harro nago zutaz!

Andres
Jodeeeee... Hau kolosala izango da!

HAURRA (OFF)
7 ilea. Irailak 11. Bai, hala da, el 11-S.

Laurak telebista ikusten eta pelotazoak jaten. Formula 1-eko lasterketa. Xabi eta Andres oso interesaturik. Leire eta Tere ez.

Andres
(Xabi-ri) Ez dut piperrik ikusten. ¿Nor doa lehena?

Tere
(Leire-ri) Ta ze izen ipiniko diozue?

Leire
Ez dakigu oraindik.

Xabi
Hamilton.

Tere
Hamilton?

Xabi
Bai!!

Tere
Ze arraroa! "Hamilton Pérez". No me pega.

Andres
Ez dute ezer esplikatzen, koño. Nor sartu da orain boxetan?

Tere
Ez duzue pentsatu beste alternatiba bat?

Leire
(Ulertu gabe) Nola beste alternatiba bat?

Xabi
Raikonnen.

Tere
Jeseeus!! Euskal izenak gero eta xelegoak.

Leire
Ze izen?

Tere eta Xabi
Raikonnen.

Leire
Raikonnen euskalduna da?

Xabi y Andres
Finlandiarra!

Tere
Zure aitite zenaren izena jarriko bazenio, ez dakizu ze ilusio! Sebastian. Eh, Andres?

Andres
Zer?

Tere
Zuri ze iruditzen Sebastian?

Andres
Ze Sebastian?

Xabi
(Andres-i) Vettel.

Andres

Uff! Nazkagarria gizona!

Tere

Aizu! Errespetu pixka bat hildakoeekin!!

Xabi

Vettel hilda dago? No somos nada!

Leireri pelotazo bat kontrako eztaeratik sartzen zaio, eta lehengo eskenaren antzekoa egiten dute orain. Diferentzia bakarra, orain Xabik eskua ematen diola Leireri. Andres telebista ikusten, kasurik egin gabe.

Tere

Hartu arnasa sakon. Horela. Eta bultza.

Erditze aurreko harnasketa erakusten dio.

Andres

Ixildu, koño, ez naiz enteratzen!!

Leire

Ah... Ezin dut!! Ezin dut!!!

Tere

Bai, bultza, bultza gogor.

Xabi

Eutsi, maitea, eutsi!!

Tere

Irteten ari da!! Bultza!! Irteten ari da!!

Leire

Ahhhh...!!

Tere

Irten egin da!!

Leire leher eginda, arnas estuka, izerdi patsetan. Tere eta Leire emozionaturik. Leirek musu bat ematen dio.

Andres

Bukatzen ari da. Ba azkenean Fernando izango da.

Tere

Fernando gehiago gustatzen zait, aizu.

Más de toda la vida.

Haurra (off)
Zortzigarren ilea, Urriak 21, Trafalgarreko bataila.

Denak Tereren eguna ospatzen. Giro ona. Xabik txanpain botila kutxarillaz jotzen du, atentzioa eske.

Leire
Ixilik denok! Xabik hitz egin nahi du!

Xabi
Eskerrik asko. Leire, Andres, Tere... Deitu ahal dizuet aita eta ama?

Tere
(Emocionada) Bai, laztana, bai.

Xabi
Ez naiz luzatuko.

Andres
Hala bedi.

Xabi
Eskerrak eman nahi dizkizuet zuen etxean hartu nauzuelako.

Andres
Ze erremedio!

Xabi
Gure artean denetarik egon da, une onak eta txarrak.

Andres
Txarrak batez ere.

Xabi
Baina badago gauza bat batzen gaituena.

Andres
Hipoteka.

Tere
Ai, gizona, utziozu mutilari!

Xabi
Jada ez dakit zer esan behar nuen.

Andres
Lagunduko dizut: "Eta bukatzeko..."

Xabi
(Ilusioa galduta) Ba hori, zorionak, Tere.

Leire
Itxoin! Tarta falta da.

Leire Tartaren bila irteten da. Xabik txanpain botila irekitzen du.

Andres
Kontuz kortxoarekin, gero.

Tere
Ez apuntatu gora, lanpara dago ta.

Andres
Lehiora ere ez, gizona, kristalezkoa da!

Xabik albo batera apuntatzen du, erdiko alturan, eta aldi berean, Leire, Offean, "Zorionak zuri" kantatzen hasten da.

*Xabik kortxoa disparatu eta Leireren ohiua entzuten dugu
offean.*

Andres

Ostia! Triparen erdian. Punteria ederra!

Leire sartzen da, makurtuta eta minez.

Tere

Ai ene umea!!

Laire

Eta nirea!

Xabi

Leire!! Ondo zaude?

*Xabi eta Tere Leire laguntzera doaz. Berak gelditzeko
esaten die keinu batez. Geldirik geratzen dira denak, Leire
zer egingo zai, urduri.*

Leire

Erditzera noala uste dut!!

Tere

Hartu arnasa sakon. Horela. Eta bultza.

Erditze aurreko harnasketa erakusten dio.

Leire

Ah... Ezin dut!! Ezin dut!!!

Tere

Bai, bultza, bultza gogor.

Bapatean Leire gelditu eta irribarrez...

Leire

Txantxetan ari naizela, txotxoloak.

Xabi

Jode, Leire...

Leire

Ui... Ostikadatxo bat eman dit!

Tere

Futbolaria izango da, aitite bezala!

Andres

Edo tontolaba, aita bezala.

Haurra (off)
Eta bederatzigareen ilea. Abenduak 28. Inuxenteen eguna.

Andres Tere eta Xabi telebista ikusten. Leire-ren ohia entzuten da.

Leire (off)
Xabi!! Ama!!

Xabi y Tere
Zer?

Leire (off)
Badator!!

Xabi y Tere
Nor?

Leire (off)
Nor izango da ba? Umea!!

Xabi
Hasi gara berriro!

Andres
Jode, Leire, egunero broma bera... Nahikoa dugu!

Leire (off)
Urak egin ditudala!

Andres
Pesada.

Leire (off)
Xabi, zatoz!!

Xabi
(Irriz) Bai, bai, oraintxe bertan!! (A Andres) Honek uste du babua naizela.

Andres
Ah, berak ere bai?

Tere
Eta egia bada?

Andres
Tere, mesedez... Holabete osoa daramabroma berarekin. Eta gainera... Ze egun da gaur?

Tere
Abenduak 28.

Andres eta Xabi
Inuxenteen eguna.

Leire (off)
Aii!!!

Tere
Badaezpada ni banao.

Tere badoa.

Xabi y Andres
Inuxentea.

Telebista ikusten jarraitzen dute. Gutxira haur baten negarra entzuten da.

Xabi
Ostia!!

Elkarri begiratu eta korrika irteten dira.

Xabi (off)
Leire, maitea!!

Leire (Off)
Maitea? Tontolaba!! Bakar bakarrik utzi nauzu, jode!

Xabi (Off)
Barkatu.

Leire (off)
Ni barkatu ni hostias!

Tere (off)
Lasai, umeak! Hau zuen bizitzako egunik politena da ta!

Leire (off)
Orduan nolakoa izango da petralena!!

Xabi
Barkatu, uste nuen...

leire (Off)
Mesedez, ez ikutu!!

Haurra (off)
Egutegi maitea, munduan minutu eskax bat daramat, eta jada dena absurdoa iruditzen zait.

Denak sartzen dira, irribarre inozoekin. Xabik haurra dakar besoetan, zapietan bildurik.

Haurra (off)
Hau omen da tontolaba hauen bizitzako egunik ederrena. Eta niretzat, orain arteko txarrena.

Xabi
Beitu zelako pilila!!

Haurra (off)
Eh, ikutu zurea, no te jode. Tori, ea ikasten duzun!

Haurrak txiza egiten dio Xabiri aurpegian.

Xabi
(Pozarren) Ui!! Txiza egin dit aurpegian!!

Denek barre egiten dute.

Haurra (off)
Ke ba! Ez du ikasiko! Bai, bai, zuek barre egin. Ikusiko duzue, kabronazoak!!